



## II. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### Bermeoko Udala

##### 2024. urtean Santa Eufemia eguneko baserri giroko azokako postuak jartzeko baimena.

2024. urteko Santa Eufemia azokako postuen oinarriak, eranskinak eta deialdia zabaltea onartu dira, 2024ko uztailaren 24ko 2024/4562 zenbakidun Alkatetza Dekretuz, 2024ko irailaren 16an Bermeoko Lameran ospatuko den baserri giroko azokan ondare publikoaren erabilera baimentzeko.

##### Xedea

Santa Eufemia eguneko azokako postuak jartzeko oinarriak onartzea eta deialdia zabaltea.

##### Iraupena

Egun bat, 2024ko irailaren 16a.

##### Oinarriak aztertzeke lekua eta epea

Oinarriak Bermeoko Udaleko web-orrian egongo dira ikusgai, eskabideak aurkezteko azken egunera arte.

##### Eskabideak aurkezteko tokia eta epea

Eskatzaile guztiak, parte hartu ahal izateko, Alaiki enpresan eman beharko dute izena, abuztuaren 5etik 23ko 14:00ak arte. Izena emateko, eranstean diren eskabidea eta zinpeko aitortpena sinatuta bete beharko dituzte eta posta arruntez edo elektronikoz (elektronikoki sinatuta) aurkeztu.

- Alaiki.
- Igeltzera enpresa parkea - Barrikako bidea, 2 - D4 pabilioia -48610-Urduliz.
- Tel.: 652720982 – Helbide elektronikoa: azoka@alaiki.eus

##### Eskabideen esleipena

2024ko abuztuaren 29an, Bermeoko Gizarte eta Kultura Etxean. Ekintza hau publiko izango da eta egun bat aurretik jakinaraztera emango da web-orrian.

Bermeon, 2024ko uztailaren 24an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly